



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Ohikoa
Eguna: 2021.01.28
Ordua: 19:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2020/12/18ko akta aho batez onartzen da.

2. 2021EKO TASA ETA ZERGEN AKORDIOA.

Idazkariak eta Alkateak 2021eko ekitaldirako tasa eta zergen gaia azaltzen dute.

Kontribuzioaren karga tasari dagokionez, Arantzako Balorazio Ponentzia berria 2019an %0'18ko karga-tasarekin sartu zen indarrean eta ordutik karga-tasak ez duela inolako aldaketarik jasan azaltzen du Idazkariak. Hau dela eta, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 15eko 2/1995

Foru Legearen 139. artikulua araberan, karga-tasa %0'25 eta %0'50 artekoa izan beharko luke, eta bortsu urteko epea ezartzen du tasa handitzeko, aipaturako marjinaren barruan kokatu arte. Hori dela eta, idazkariak azaltzen du beharrezkoa dela orain arte aplikatzen zen karga-tasa eguneratzea, Nafarroako Toki Administrazioa erreformatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean ezarritakoa betetzeko.

Era berean, tasei buruz, Imanol Lukanbio zinegotziak Herri-Lurren Ordenantzari dagokionez, kamioi ustiapenen tasa aktualizatu beharko zela azaltzen du, horretarako, honako proposamen hau egiten du:

- Behin betiko mozketak: m3/1€.
- Bakanketak: m3/0'50€.
- 50 tona arte salbuetsita.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- 2021. urterako %0,20ko karga-tasa ezartzea hiri-kontribuzioa eta landa-kontribuzioa ordainarazteko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 139.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Hartutako erabakia jendarean jartzea, alde aurretik "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuta, 30 eguneko epean bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten.

3.- Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez badago, aurreko puntuan adierazitako epea igaro ondoren, aipaturako zerga-tasa behin betiko onartutzat joko da. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, inguruabar hori behin betiko testuarekin batera argitaratuko da "Nafarroako Aldizkari Ofizialean".

4.- Tasei dagokionez, Herri-Lurren Ordenantzarekin bat eginez, kamioi ustiapenen tasa honela ezartzea:

- Behin betiko mozketak: m3/1€.
- Entresakak: m3/0'50€.
- 50 tona arte salbuetsita.

5.- Hemen aipaturik ez dauden gainontzeko tasa eta tipoak dauden bezala mantentzea.

3. 2021EKO AURREKONTU ETA EXEKUZIO OINARRIEN ONESPENA.

Idazkariak Arantzako Udalaren 2021eko aurrekontua eta aurrekontua gauzatzeko exekuzio oinarriak azaltzen ditu. Honela ba, partida guztiak banan-banan berrikusten dira, zalantzarik balego osoko bilkuraren ekitaldi berean argitu ahal izateko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- 2021. urterako aurrekontuari hasierako onespena ematea, bilkuran aipaturako aldatetekin.

2.- Hasieran onespena ematea 2021erako aurrekontua gauzatzeko exekuzio oinarriei.

3.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202. artikulua arabera, hasierako erabakia jendaurrean jarriko da hamabortz egun baliodunez, iragarkia "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu ondoren.

4. 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOA.

Idazkariak Arantzako Udaleko Plantilla Organikoari buruzko informazioa ematen du eta Plantilla Organikoaren azken aldaketa onartu zenetik ez dela inolako aldaketarik izan azaltzen du.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Hasierako onespina ematea Arantzako Udalaren 2021eko Plantilla Organikoari.

2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. eta 271. artikuluetan xedatutakoaren arabera, hasierako erabakia jendaurrean jarriko da hamabortz egun baliodunez, iragarkia "Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren".

5. 2021EKO LAN EGUTEGIA.

Idazkariak 2021erako proposatutako lan-egutegia azaltzen du. Hori guztia Ekonomia Politikako, Enpresako eta Laneko zuzendari nagusiaren maiatzaren 18ko 217/2020 Ebazpenean eta Enpresa Politikako, Nazioarteko Hedapeneko eta Laneko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 819/2020 Ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Proposatutako lan-egutegia onartzea.

2.- Proposatutako lan-egutegia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

6. OSIÑA KARRIKA 3 INGURUKO BIDEAREN KALIFIKAZIO JURIDIKO ALDAKETA.

Idazkariak Arantzako Udalaren 2020ko urriaren 1ean egindako ohiko bilkuran hasierako onespina eman zitzaiola azaltzen du, Osiña Karrika 3 inguruan dagoen eta 1. poligonoko 862. lurzatiarekin mugakide den bideko zati baten (10'80m²) kalifikazio juridiko aldatzeko espedienteari, ondasun gisa kalifikatu ahal izateko eta ondoren trukaketa bat egiteko 5. poligonoko 974. lurzatiarekin, honela konposta egiteko gune bat egin ahal izateko Arantzako herrian.

Iragarkia 2020ko abenduaren 10ean argitaratu zen "Nafarroako Aldizkari Ofizialean", jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu gabe. Hori dela eta, Nafarroako Toki Erakundearen ondasunen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 12.1 artikuluan eta

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 103.1 artikuluan xedaturik, espedienteari behin betiko onespena eman beharko zitzaiola azaltzen du Idazkariak.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Behin betiko onestea Osiña Karrika 3 inguruan dagoen eta 1. poligonoko 862. lurzatiarekin mugakide den bideko zati baten (10'80m²) kalifikazio juridiko aldatu eta desafektatzeko espedienteari.

2.- "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" akordio hau argitaratzea.

7. 5. POLIGONOKO 894. LURZATIAREN XEHETASUN-AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak 166/2020 Alkate ebazpenaren bidez Juan Luis Echeverria Madariaga jaunak aurkezturiko 5. Poligonoko 894. Lurzati xehetasun-azterlanari hasierako onespena eman zitzaiola azaltzen du.

Hau horrela izanik, 2020ko abenduaren 24an argitaratu zen hasierako onespena "Nafarroako Aldizkari Ofizialean". Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, Idazkariak azaltzen du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikulua arabera, behin betiko onespena eman beharko zaiola xehetasun-azterlanari ondotik "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu ahal izateko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Behin betiko onespena ematea Juan Luis Echeverria Madariaga jaunak aurkezturiko 5. Poligonoko 894. Lurzati xehetasun-azterlanari.

2.- "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" akordio hau argitaratzea.

8. ARANTZAKO HIRIGINTZAKO 3 ARAUTEGI TXOSTENEN HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak zein Eneko Sarrias hirigintzako zinegotziak Arantzako Hirigintza Araudi Orokorra, Lurzoru Urbanizaezinerako Hirigintzako Araudi Berezia eta Arau Subsidiarioen dokumentazio grafikoaren aldaketan berri ematen dute. Bere momentuan, 2020ko abuztuaren 31ko Osoko Bilkuran egin beharreko aldaketan berri eman zen eta ordutik ez da bertzelako aldaketarik egin.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Arantzako Hirigintza Araudi Orokorra, Lurzoru Urbanizaezinerako Hirigintzako Araudi Berezia eta Arau Subsidiarioen dokumentazio grafikoaren aldaketei hasierako onespena ematea.

2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, akordioa "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratzea.

9. BORTZIRIETAKO OSASUN ZENTROAREN MOZIOA.

Alkateak eta Idazkariak Lesakako Osasun Zentrotik jasotako idatzia azaltzen dute, izan ere, egoera hagitz prekarioan aurkitzen da Bortzirietako Osasun Zentroa. Hori dela eta, Idazkariak Etxalarreko Udalak bidalitako mozioaren berri ematen du. Honen harira, Bortzirietako alkateen 2020ko urtarrilaren 13ko bilkuran Bortzirietako bortz udalak moziora atxikitze adostu zen alde aurretik Udaletako Osoko Bilkuretatik pasatuta, honela, Lesakako Osasun Zentroko arazoari irtenbide bat eman ahal izateko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Arantzako Udalaren babesa agertzea Lesakako Osasun Zentroarekiko.

2.- Bat egitea gai honen inguruan Etxalarreko Udalak aurkeztutako mozioarekin.

3.- Erabaki hau Lesakako Osasun Zentroa eta Lesakako Udalari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

10. ALKATEAREN EBAZPENAK

167/2020-10/2021 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

11. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

